**Arduraduna:** Graduaren koordinatzailea
**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana
**Betearazpen data:** 2022/08/01
**Hartutako neurriak**

2021/2022 ikasturtearen lehen lauhilekoan, gradu koordinatzaileak bilerak egin zituen modulu bakoitzeko irakasleekin, Kogizarte bidez, informazioa emateko Gizarte Hezkuntzako Graduak eta fakultateak lan komunerako eskaintzen dituzten guneei buruz.

**Tituluak:**
GESOCI

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : | MET: X |
|---|---|---|---|---|---|

## 2.2.05, Ikasleen mugikortasuna

## 2.2.05, Ikasleen mugikortasuna

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-4

**Prozedura honek berekin dakarren lana birbanatzeko modua aztertzea, haren kudeaketa hobetzeko**

Prozedura honek berekin dakarren lana birbanatzeko modua aztertzea, haren kudeaketa hobetzeko

**Arduraduna:** Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/02/04

**Hartutako neurriak**

Dokumentu batean bildu dira mugikortasunari lotuta urtero egiten diren prozesu eta ekintza nagusiak. Dokumentu horrek azaltzen du zeintzuk diren prozesuak, noiz egiten den bakoitza eta zer ekintzak osatzen dituzten, eta, gainera, nor den ekintza bakoitzaren arduraduna. Horrela, prozesuen eta ekintzen antolakuntza erabili da lana birbanatzeko, beharrezkoa zena azken urteetan mugikortasunak izan duen gorakadagatik.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-5

**Nazioartekotze Planaren lehen urteko inplementazioa eta hedapena ebaluatzea**

Nazioartekotze Planaren lehen urteko inplementazioa eta hedapena ebaluatzea

**Arduraduna:** Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea

**Jatorria:** Agentzien kanpo txostenak

**Betearazpen data:** 2021/12/29

**Hartutako neurriak**

Urritik abendura, nazioartekotze planak lehenengo urtean izan duen hedapen maila ebaluatu dugu. Ikusi dugunez, plana bete egin da neurri handi-handi batean; are gehiago, hurrengo urteetarako programatutako ekintzaren bat abian jartzera ere iritsi gara. Ebaluazio hori aztertu egin da nazioartekotze batzordean eta ikastegiaren kalitate batzordean.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MET-3

**Hitzarmen berriak sinatzea beste unibertsitate batzuekin, mugikortasun plazen eskaintzaren erritmo gero eta handiagoari eusteko.**

Hitzarmen berriak sinatzea beste unibertsitate batzuekin, mugikortasun plazen eskaintzaren erritmo gero eta handiagoari eusteko.

**Arduraduna:** Nazioarteko Harremaneko eta Mugikortasuneko dekanordea

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/01

**Hartutako neurriak**

2021/2022 ikasturte amaieran, guztira 67 akordio ditugu formalizatuta eta indarrean: ERASMUS: 37 hitzarmen finkatu eta 2 izapidetze fasean.
SICUE: 24
Latinoamerika: 4
Beste batzuk: 2

**Tituluak:**

GPRIMA GESOCI GINFAN

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : | MET: X |
|---|---|---|---|---|---|

## 2.2.06, Ikasleen praktikak / Practicum

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-28

**Practicum eta GRAL batzordeko kideak proposatzeko prozedura definitzea**

Practicum eta GRAL batzordeko kideak proposatzeko prozedura ezartzea eta definitzea, eta haien atribuzioak zehaztea.

**Arduraduna:** Practicum batzordea

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/01

**Hartutako neurriak**

1) Sailetako arduradunek kide aldaketaren berri ematen diote dagokion dekanordeari (batzordeburua), sailean eginiko bileraren aktaren bidez.
2) Dekanordeak batzordean proposatzen du sailak planteatutako aldaketa, onartua izan dadin.
3) Batzordeburuak/dekanordeak proposamena helarazten dio idazkari akademikoari, Fakultateko Batzarrak onar dezan, hala badagokio.

## 2.2.06, Ikasleen praktikak / Practicum

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

**Ekintzaren kodea:** 20-GPRIMA-MET-58
**Practicumaren araudia aldatzea, atzerriko hizkuntzaren edo musikaren aipamena aukeratzen duten Lehen Hezkuntzako ikasleek espezialitate horri lotutako praktikak egin ditzaten.**
Practicumaren araudia aldatzea, atzerriko hizkuntzaren edo musikaren aipamena aukeratzen duten Lehen Hezkuntzako ikasleek espezialitate horri lotutako praktikak egin ditzaten. Aldaketa horren helburua da ikasle horien prestakuntza hobetzea alor espezifiko horietan.
**Arduraduna:** Gradu Amaierako Lanen eta Graduen eta Graduondokoen Koordinazio dekanordea
**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana
**Betearazpen data:** 2022/08/01
**Hartutako neurriak**

Fakultateko Batzarrak onartu egin du practicumaren araudia aldatzeko proposamena, atzerriko hizkuntzaren edo musikaren aipamena aukeratzen duten Lehen Hezkuntzako ikasleek espezialitate horri lotutako praktikak egin ditzaten.

Horrek berekin dakar Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzea praktika eskaintza honen kudeaketa, 2021-2022 ikasturteko matrikulari begira, azkenean normaltasunez egin dena uztailean.

Ekintza zabalik utzi da, aldaketaren emaitza baloratzeko 2021-2022 ikasturtean ezarri ondoren.

**Tituluak:**
GPRIMA

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : | MET: X |
|---|---|---|---|---|---|

## 2.2.08, Prestakuntza osagarria/etengabekoa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-8
**Graduondokoen proposamen berriak egitea hiru tituluetan**
Graduondoko proposamenak egitea hiru tituluetan, eskaintza handiago bat egiteko fakultateko egresatuei, bai eta etengabeko prestakuntzako eskaintza bat ere, lan munduko prestakuntza beharrei buruzkoa.
**Arduraduna:** Ikasleria, Gizarte Hedakuntza eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea
**Jatorria:** Beste batzuk
**Betearazpen data:** 2022/08/01
**Hartutako neurriak**

.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-27
**Fakultatean antolatutako jardunaldi/hitzaldi/ikastaroen erregistro prozeduraren sistematizazioa.** Fakultatean antolatutako prestakuntza osagarriko jardueren erregistroa eta jarraipena erraztuko duen prozedura bat ezartzea.
**Arduraduna:** Dekano taldea
**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana
**Betearazpen data:** 2022/08/01
**Hartutako neurriak**

1. Web inprimaki bat sortzea
2. Antolatzaileak jarduera erregistratzea web inprimakian.
3. Fakultate Batzarrak onartzea.
4. Idazkaritza Akademikoak ziurtagiria ematen die antolatzaileei.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

# 3. AKADEMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETA

## 3.1 Kudeaketa akademikoa

### 3.1.4, Beken, ziurtagirien eta tituluen kudeaketa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-2

**Idazkaritza arretarako hitzordu sistema bat ezartzea.**

Idazkaritza arretarako hitzordu sistema bat ezartzea, presentziala eta telefonikoa.

**Arduraduna:** Administrazio burua

**Jatorria:** Beste batzuk

**Betearazpen data:** 2022/05/31

**Hartutako neurriak**

Martxoaren erdialdean hasi gara Idazkaritzan publikoa aldez aurreko hitzordu sistema baten bidez hartzen (sistema horren berri eman zaie ikasleei).
Idazkaritzan hitzorduak kudeatzeko beste modu bat da, nahiz eta jarraituko dugun erantzuten telefonoz deitzen duten, bulegora etortzen diren edo e-mail bidez gurekin harremanetan jartzen diren pertsonei. Hitzordu sistema bidez, arreta antolatu eta bermatu egiten da.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 3.2 Aurrekontuaren eta baliabide materialen kudeaketa

### 3.2.1 Kudeaketa ekonomikoa eta baliabide materialen kudeaketa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-23

**Hizkuntza laborategien (1S07T eta 1S08T) eta gimnasio handiaren tresneria osatzea.**

Hizkuntza laborategien (1S07T eta 1S08T) tresneria osatzea, rack, kanoi eta audioarekin, orain arte kanoi eramangarriarekin ibili garelako. Gimnasio handiaren kasuan, haren ezaugarriak direla-eta, elementu horiek guztiak barne hartuko dituen totem bat jarriko da.

**Arduraduna:** Administrazio burua

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/31

**Hartutako neurriak**

2022 urteko irakats ekipamendurako deialdiaren bidez, hizkuntza laborategien tresneria osatzea eskatu da, rack armairua (ordenagailua), kanoia eta audioa instalatuta. Horrek nabarmen hobetuko du ikasgela horietan egiten den irakats lanaren kalitatea.
Elementu horiek denak 2021/2022 ikasturte amaietan instalatu dira.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-19

**Ikasgela handiago bat atontzea behe solairuan, talde ertain-handien irisgarritasun beharrei erantzuteko**

Behe solairuko ikasgelak txikiak (36 lagunentzat) edo ertainak (54) dira, eta gela handiago bat beharko genuke, gutxienez 75 lagunentzat.

**Arduraduna:** Administrazio burua

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/07/31

**Hartutako neurriak**

2022ko uztailean eta UPV/EHUren erreforma, egokitzapen eta hobekuntza deialdiaren bidez, 0S06G eta 0S07G ikasgelak elkartu eta gela handiago bat atondu dugu, 70/75 lagunentzat. 2022/2023 ikasturtetik aurrera, 0 solairuko gela komodin gisa erabiliko dugu, behar bereziak dituzten ikasleentzat eta talde handientzat.

Ondorioz, bai ikasle horiek bai haien taldeek baldintza hobeagoetan lan egin ahal izango dute, ebakuazio errazeko gela batean.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

### 3.2.1 Kudeaketa ekonomikoa eta baliabide materialen kudeaketa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-24

**Paladun aulkiak ipintzea 1S16G ikasgelan**

1S16G gela talde dinamikak egiteko erabiltzen den erabilera anitzeko gela bat da. Beraz, paladun aulkiak behar ditu, dinamika bereziak egiteko eta apunteak hartzeko.

**Arduraduna:** Administrazio burua

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/31

**Hartutako neurriak**

Era honetako aulkiak eskatu ditugu irakaskuntza ekipamenduko deialdiaren bidez, eta espero dugu mesedegarria izatea ikasgelan egiten diren jardueretarako.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 4. PERTSONEN KUDEAKETA

## 4.1 Irakasle-ikertzaileen kudeaketa

### 4.1.1 Pertsonaleko politika: hautaketa, harrera eta kudeaketa

**Ekintzaren kodea:** 20-FEB-MES-51

**Ikastegiko mantentze langilearen plaza fakultateari atxikita jarrai dezan lortzea**

Ikasturte honetan erretiroa hartuko du fakultatearen mantenimenduaz arduratzen den pertsonak. "Ikastegiko mantentze langile" kategoria profesionala lanpostuen zerrendatik desagertu denez, negoziatu egin behar dugu plazaren kategoriaren aldaketa, gure ikastegiari atxikita jarrai dezan lortzeko.

**Arduraduna:** Administrazio burua

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/02/15

**Hartutako neurriak**

Ikastegiko mantentze langileak erretiroa hartu aurretik, dekanoa eta administrazio burua bildu dira gerentearekin eta AZPkoen ataleko buruarekin, lanpostu honen kategoria profesional berria adosteko. Hala, "Mantentze-lanen eta obren laguntzailea" bihurtuko da, plaza hau gure fakultateari atxikita mantentzeko konpromisoa betez.

Langileak erretiroa hartu duenean, hura ordezteko prozedura jarri da martxan 2022ko urtarrilaren hasieran burutu dena.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 5. KOMUNIKAZIOA

### 5.1, Barne eta kanpo komunikazioa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-29

**Sailekin eginiko bilerei buruzko informazioa.**

Sailekin eginiko bilerei buruzko informazioa emateko prozeduraren sistematizazioa.

**Arduraduna:** Dekano taldea

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/01

**Hartutako neurriak**

Sailekin eginiko bileren aktak jaso eta sailen arduradunei bidaltzen zaizkie, zabal ditzaten.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 5.1, Barne eta kanpo komunikazioa

**Ekintzaren kodea:** 18-MPSEDE-RET-6

**Masterrari buruzko informazioa sartzea hiru hizkuntzetan**

UNIBASQen gomendioa Psikodidaktika Masterraren egiaztapen txostenean: gomendatzen da tituluari buruzko informazio guztia sartzea hiru hizkuntzetan (adibidez, masterraren liburuxkaren ingelesezko bertsioa egitea)

**Arduraduna:** Nazioarteko Harremanetako eta Mugikortasuneko dekanordea

**Jatorria:** Agentzien kanpo txostenak

**Betearazpen data:** 2022/01/27

**Hartutako neurriak**

Gomendioa aztertu eta ondorio honetara heldu gara: gaur egun masterrak ez du nahikoa baliabide teknologikorik aldaketa hau egiteko bere liburuxkan.

**Tituluak:**

MPSEDE

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : X | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 6. GIZARTE KONPROMISOA ETA BERRIKUNTZA

## 6.2, Segurtasuna eta prebentzioa

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-18

**Fakultatean istripurik izanez gero erabili beharreko protokoloa argitzea**

Beharrezkotzat jotzen da argitzea fakultatean ikasleek, irakasle-ikertzaileek edo AZPko langileek istripurik izanez gero erabili beharreko protokoloa.

**Arduraduna:** Larrialditako zuzendaria.

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/02/14

**Hartutako neurriak**

Berrikusi egin dugu fakultatearen webguneak istripuei buruz ematen duen informazioa. Zaharkitua zegoen informazio dezente kendu eta irizpideak bateratu ditugu UPV/EHUren prebentzio zerbitzuen jarraibideekin.
Bestetik, atezainei protokoloari buruzko informazio argiagoa helarazteaz gain, bi karpeta ireki dira (bi atezaintzentzat), hartu beharreko neurrien laburpenarekin eta istripurik gertatuz gero osasun zentroetara bidali beharreko dokumentu jada zigilatuekin.

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 6.4, Euskara

**Ekintzaren kodea:** 21-FEB-MES-26

**Hizkuntza kudeaketa integratzea erakundean.**

EUSKALIT: HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK - Euskararen Txokoa sortzea.

**Arduraduna:** Ikasleria, Gizarte Hedakuntza eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea

**Jatorria:** Aurreko ikasturteko hobekuntza ekintzen plana

**Betearazpen data:** 2022/08/01

**Hartutako neurriak**

Euskararen Txokoa sortzea eta Euskalit hizkuntzen kudeaketa praktika egokien bilatzailean erregistratzea (https://www.euskadi.eus/hizkuntzen-kudeaketa-praktiken-bilatzailea/web01-a2plana/eu/)

| PEC : | RES : | MES : X | MOT : | RET : | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

## 6.5, Berrikuntza eta ikerketa

## 6.5, Berrikuntza eta ikerketa

**Ekintzaren kodea:** 18-MPSEDE-RET-11

**Esplizituagoa egitea irakasle-ikertzaileen inplikazioa irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan**

UNIBASQen gomendioa Psikodidaktika Masterraren akreditazioa berritzeko txostenean: gomendatzen da esplizituagoa egitea irakasle-ikertzaileen inplikazioa irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan

**Arduraduna:** Kalitate, Jasangarritasun eta Ikerketako dekanordea

**Jatorria:** Agentzien kanpo txostenak

**Betearazpen data:** 2022/01/27

**Hartutako neurriak**

Irakasleei eskatu zaie eguneratzeko beren curriculumak webean, eta bereziki aipatzeko parte hartu duten irakaskuntza berrikuntzarako proiektuak.

**Tituluak:**

MPSEDE

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : X | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

# 7. EBALUAZIOA, BERRIKUSPENA ETA HOBEKUNTZA

## 7.1, Interes taldeen gogobetetzea neurtzea

**Ekintzaren kodea:** 18-GPRIMA-RET-9

**UNIBASQen hobekuntza gomendioa graduaren 2016-2017 jarraipen txostenean** Jarraipena ematea kanpo instruktoreen gogobetetze mailak jasotzeari

**Arduraduna:** Dekano taldea

**Jatorria:** Agentzien kanpo txostenak

**Betearazpen data:** 2022/08/01

**Hartutako neurriak**

Eusko Jaurlaritzaren praktikei buruzko dekretu berriaren ondoren (33/2018), lanean ari gara tutoretza lana egiten duten fakultatetik kanpoko pertsonen gogobetetzeari buruzko informazio bilketa sistematizatzeko.
Informazio bilketa sistematizatu egin da Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren prozeduren bitartez, eta GAUR plataformaren bidez garatzen da.

**Tituluak:**

GPRIMA

| PEC : | RES : | MES : | MOT : | RET : X | MET: |
|---|---|---|---|---|---|

# 5. Emaitzak

## 5.1 Prozesuen araberako kudeaketaren emaitza nagusiak

### 1. PLANGINTZA

BALORAZIOA: Prozesu honen prozedura guztiak beharrezkoak dira ikastegiaren egitekoa arrakastaz kudeatzeko eta egiteko horretan zehaztutako erronkak onartzeko. Den-denek ikuspegi osagarri bat eman dute, asmo hau behar bezala bete dadin.

I. Plan Estrategikoaren ebaluaziotik abiatuta, bigarren plan estrategikoa egingo da fakultatean.

### 2. GOI-MAILAKO HEZKUNTZA

BALORAZIOA: Prozeduretan ikus daitekeenez, emaitzak positiboak izan dira oro har, fakultateko eragile guztiek pandemiara egokitzeko egin duten ahaleginagatik neurri handi batean. Egokitzeko ahalegin hori egin da ikasleen erakarpenean, matrikulazioan, harreran, irakaskuntza modalitate aldaketan, ordutegietan, ebaluazio prozesuetan, azpiegituretan, graduazio ekitaldiaren egokitzapenean... Eta hori guztia irakasleen eta AZPko langileen lan koordinatuari esker.

**2.1 Erakartzea eta onartzea**

| 2.1.3, Ikasleen harrera | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Ikasle berrien harrera programarekiko gogobetetze maila<br>Goi muga: 4.0 Behe muga: 3.2 | 3.53 | 3.77 | 3.90 | 3.73 |
| Gogobetetze maila handia | | | | |

**2.2 Goi-mailako hezkuntzaren garapena**

| 2.2.01, Irakaskuntza plangintza | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Titulu bikoitzen eta baterako tituluen kopurua<br>Goi muga: 3.0 Behe muga: 1.0 | 1.00 | 1.00 | 3.00 | 4.00 |
| Titulu bikoitzen/baterako tituluen kopurua handitzea | | | | |
| Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgai moduluen kopurua<br>Goi muga: 1.0 Behe muga: 0.0 | 1.00 | 1.00 | 1.00 | 1.00 |

| 2.2.02, Irakaskuntzaren garapena | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Hizkuntza ez-ofizialetan akreditatutako irakasle-ikertzaileak (%)<br>Goi muga: 25.0 Behe muga: 15.0 | 22.64 | 24.44 | 25.00 | 30.19 |
| Hizkuntza ez-ofizialetan akreditatutako irakasle-ikertzaileen kopurua areagotzea | | | | |
| Graduan eskolak ematen dituzten irakasle-ikertzaile doktoreak (%)<br>Goi muga: 80.0 Behe muga: 60.0 | 71.76 | 75.19 | 74.62 | 75.78 |
| Irakasle-ikertzaile doktoreen kopurua areagotzea | | | | |
| Ikastegiko lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoreak (%)<br>Goi muga: 70.0 Behe muga: 50.0 | 76.71 | 71.23 | 71.83 | 76.06 |
| Goranzko joera | | | | |
| Ikastegiarekin lotura iraunkorra duten lanaldi osoko irakasle-ikertzaileak (%)<br>Goi muga: 70.0 Behe muga: 50.0 | 28.08 | 26.71 | 27.46 | 28.87 |
| Egonkorra, goranzko joera | | | | |
| Irakaslanarekiko ikasleen gogobetetze maila<br>Goi muga: 4.2 Behe muga: 3.2 | 3.90 | 3.85 | | 4.00 |
| Gogobetetze maila handia | | | | |
| Graduan metodologia aktiboak erabiltzen dituen irakasle talde oso aktiboen kopurua<br>Goi muga: 26.0 Behe muga: 15.0 | 18.00 | 18.00 | 18.00 | 18.00 |

| 2.2.05, Ikasleen mugikortasuna | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Mugikortasun programan parte hartu duten egresatuen ratioa Goi muga: 0.08 Behe muga: 0.073 | 0.12 | 0.15 | 0.11 | 0.11 |

| 2.2.06, Ikasleen praktikak / Practicum | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|

| 2.2.06, Ikasleen praktikak / Practicum | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Ikasleen balorazio globala beren practicum egonaldiari buruz<br>Goi muga: 4.2 Behe muga: 3.0 | 4.60 | 4.40 | 4.40 | 4.20 |
| Balorazio altua | | | | |

## 3. AKADEMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETA

BALORAZIOA: Ikasturte honetan, aldez aurreko hitzordu sistema ezarri du Idazkaritzak, egokiago antolatzeko bertan ematen den arreta presentziala.
Lehen urrats garrantzitsuak egin dira digitalizazio administratiboan. Gero eta prozesu gehiago izapidetu daitezke online, fakultatera joan beharrik gabe, ikasleen erosotasunaren mesederako.

Lortu dugu akten ia % 100 modu digitalean sinatzea.

Kudeaketa ekonomikoa eta zerbitzuen kudeaketa ia gorabeherarik gabe egin dira.

## 4. PERTSONEN KUDEAKETA

BALORAZIOA: Irakasle taldearen berregituraketa sendotuz doa pixkanaka, eta urtetik urtera areagotzen ari da doktoreen eta irakasle-ikertzaile iraunkorren kopurua. Pandemiaren zailtasunak gorabehera, irakasleek jarraitu dute parte hartzen prestakuntza jardueretan, UPV/EHUk eta fakultateak berak antolatutakoak, eta ez dugu urtea pasatzen utzi nahi izan pertsonen, irakasle-ikertzaileen eta AZPkoen omenezko ekitaldi txiki bat antolatu gabe, indarreko osasun araudira egokituta.
Saiatuko gara AZPkoen kopuruari eusten, langile batzuek erretiroa hartuko badute ere

## 5. KOMUNIKAZIOA

BALORAZIOA: 2021/2022 ikasturtean, hainbat ekintza egin dira prozesu honen kudeaketa hobetzeari begira, gehien bat oinarrituta xede horretarako ezarritako komunikazio kanalen optimizazioan eta sistematizazioan, bai eta horietan detektatutako hobekuntzen inplementazioan ere. Hala, sistematizatu egin da sailekin eginiko bilerei buruzko informazioa emateko prozedura.

## 6. GIZARTE KONPROMISOA ETA BERRIKUNTZA

BALORAZIOA: Prozesu honen balorazioa oso positiboa da. Dagozkion prozeduretan zehaztu den bezala, ahalegin berezia egin dugu ikastegiaren egitekoari lotutako talde guztien segurtasuna bermatzeko. Ahalegin hori egin dugu kontuan hartu behar izan dugulako COVID-19aren pandemiak sortutako egoera. Alde horretatik, martxan jarritako tresna guztiek ondo funtzionatu dute, eta ikasturtea gorabehera handirik gabe egin da. Gainera, beste modu batean ezin izan zitekeen bezala, fakultateak gizartearekin duen konpromisoaren ondorioz, ikastegiaren balioei loturiko gainerako prozedurak kudeatu dira aintzat harturik horietako bakoitzean ezarritako parametroak eta fluxugramak. Horrela, prozesu honen balorazio globala oso positiboa da.

| 6.4, Euskara | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| EUSKALITek ziurtatutako BIKAIN ebaluatzaile kop. Goi muga: 3.0 Behe muga: 0.0 | 3.00 | 3.00 | 3.00 | 3.00 |

## 7. EBALUAZIOA, BERRIKUSPENA ETA HOBEKUNTZA

BALORAZIOA: Prozesu honen prozedura guztietan, aintzat hartu dira haien deskribapena eta fluxugrama, eta ebaluatu, berrikusi eta hobetu egin dira kudeaketarekin zerikusia duten alderdi guztiak. 2021/2022 ikasturtean, irakasleei loturiko adierazleen jarraipena egin da, haien bilakaera ebaluatzeko, eta agerian gelditu da irakasleen egonkortasunean egin den urratsa. Horrela, prozesu honen balorazio globala oso positiboa da.
Fakultatearen II. Plan Estrategikoa egiteak aukera emango digu KBBSren prozesu guztiak hobetzeko, arreta berezia jarrita komunikazio, gizarte konpromiso eta berrikuntzako prozesuetan.

## 5.2 Tituluen emaitza nagusiak

## GRADUAK

### Haur Hezkuntzako gradua

BALORAZIOA: Txostenaren arabera, Haur Hezkuntzako graduak indargune batzuk ditu, azken urteetan agerian gelditu direnak: besteak beste, arrakasta, errendimendu eta gogobetetze tasak. Gainera, gogoeta merezi duten eta hobetu behar diren hainbat puntu aipatzen ditu; hala nola lehen aukerako matrikulazioen beherakada, laneratzea edo irakasle iraunkorren tasa apala (egia bada ere goranzko joera bat ikus daitekeela). Aipatutako hobekuntza arlo guztiak aztertzen ari dira fakultatearen hainbat organok eskatuta (dekanotza, practicum batzordeak eta GRAL batzordeak), eta hobekuntza ekintzak proposatzen ari dira.

| | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluaren okupazioa<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 103.12 | 98.75 | 97.50 | 98.12 |
| Tituluaren egokitasuna<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 86.67 | 84.81 | 75.64 | 66.88 |
| Errendimendu tasa<br>Goi muga: 94.0 Behe muga: 90.0 | 91.68 | 94.88 | 94.85 | 95.05 |
| Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 95.0 | 97.89 | 98.08 | 96.34 | 96.61 |
| Irakaslanarekiko gogobetetze maila Goi muga: 4.2 Behe muga: 3.7 | 3.80 | 3.90 | 3.90 | 4.00 |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2014/2015 | 2015/2016 | 2016/2017 | 2017/2018 |
| Graduazio tasa<br>Goi muga: 99.0 Behe muga: 85.0 | 85.83 | 85.00 | 85.09 | 90.65 |
| Ikasketak utzi dituztenen tasa<br>Goi muga: 10.81 Behe muga: 0.0 | 7.94 | 5.33 | 6.47 | 7.41 |
| **Promozioaren urtea *** | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
| Egresatuen gogobetetzea<br>Goi muga: 7.5 Behe muga: 6.5 | 7.34 | 7.01 | 6.98 | 6.92 |
| Enplegu tasa<br>Goi muga: 0.0 Behe muga: 0.0 | 82.69 | 71.57 | 67.74 | 59.62 |

## Lehen Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: 2021/2022 ikasturtean, normaltasunera itzuli da fakultatearen jarduera, eta etengabeko ebaluazioa errazten duten metodologia aktiboak berreskuratu ditugu horrela. Gainera, ikasleen prestakuntza jardueretarako ordutegia ere berreskuratu dugu (hitzaldiak, konferentziak, tailerrak...). Horrek guztiak isla izan du arrakasta tasaren igoeran eta ikasketak uzteko tasaren beherakadan.

Oso positiboki baloratu behar da irakasleen adierazle guztietan izandako hobekuntza, bai ikerketari bai irakaskuntzari dagokionez, bai eta irakasleen kualifikazio gero eta handiagoa ere: hala nola hizkuntza ez-ofizialetan emandako eskolak, zeinari esker nabarmen handitu baita ikasturte honetan hizkuntza horietan defendatutako GRAL kopurua.

Aurreko ikasturteetan positiboegiak izan ez ziren adierazleak hobetzeko abian jarritako ekintzek (lehen hezkuntzako graduan sartzea lehen aukera gisa, eta dagokion ikasturtean defendatu ez diren GRAL esleituak) hoberanzko joera argi bat adierazten dute, eta agerian uzten du horrek fakultatean hartutako neurrien eraginkortasuna eta etengabeko hobekuntzarako haren ahalegina. Alde horretatik, nabarmentzekoa da ikasleen GRALak Gaztenpatia proiektuan sartzeko irizpideak onartu izana, aukera ematen baitu lan horiek Euskal Fondoaren bazkideak diren Latinoamerikako erakundeetan garatzeko. Hori bat dator Garapen Jasangarrirako Helburuei begira fakultateak dituen elkartasun eta inplikazio balioekin; bereziki, GJH4 helburua (pertsona guztientzako kalitate helburua) eta GJH5 helburua (berdintasuna).

| | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluaren okupazioa<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 99.00 | 100.50 | 101.00 | 99.50 |
| Tituluaren egokitasuna<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 79.29 | 83.58 | 83.66 | 87.94 |
| Errendimendu tasa<br>Goi muga: 94.0 Behe muga: 90.0 | 94.02 | 95.92 | 95.84 | 95.46 |
| Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 95.0 | 98.15 | 98.00 | 97.20 | 97.54 |
| Irakaslanarekiko gogobetetze maila Goi muga: 4.2 Behe muga: 3.7 | 3.80 | 3.90 | 4.00 | 3.90 |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2014/2015 | 2015/2016 | 2016/2017 | 2017/2018 |
| Graduazio tasa<br>Goi muga: 99.0 Behe muga: 85.0 | 83.42 | 82.05 | 81.54 | 91.19 |
| Ikasketak utzi dituztenen tasa<br>Goi muga: 16.15 Behe muga: 0.0 | 7.05 | 9.01 | 10.00 | 4.25 |
| **Promozioaren urtea *** | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
| Egresatuen gogobetetzea<br>Goi muga: 7.5 Behe muga: 6.5 | 6.72 | 7.48 | 6.72 | 6.48 |
| Enplegu tasa<br>Goi muga: 0.0 Behe muga: 0.0 | 92.13 | 79.51 | 82.69 | 68.91 |

## Gizarte Hezkuntzako Gradua

BALORAZIOA: Ebaluazio adierazle bakoitzaren balorazioa egin ondoren, uste dugu laneratzea dela Gizarte Hezkuntzako Graduaren indarguneetako bat.
Gainera, aipatzekoa da ikasturtea normaltasunez egin dela eta arrakasta eta gogobetetze indizeak oso positiboak direla, nabarmentzekoak izanik ere Gizarte Hezkuntzako Graduko ikasleen eskaera eta matrikula tasak.
Hori guztia posible izan da irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen koordinazioari esker, elkarlanean aritu baitira goi-mailako hezkuntzaren kalitate estandarrak bete zitezen.
Ikasleek oso positiboki baloratzen dute Gizarte Hezkuntzako Gradua, arrakasta tasa oso handia da, ikasketak uzten dituztenen tasa oso txikia, eta aipatzekoa da ere egresatuen enplegagarritasun egokia. Gainera, nabarmentzekoa da irakasle-ikertzaileek eginiko ahalegina: irakasle iraunkorren portzentajea apala izan arren, gora egin dute bosturtekoen eta DOCENTIAZ programaren adierazleek.

| | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluaren okupazioa<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 111.00 | 113.00 | 105.00 | 101.00 |
| Tituluaren egokitasuna<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 80.0 | 93.69 | 94.69 | 92.38 | 91.09 |
| Errendimendu tasa<br>Goi muga: 94.0 Behe muga: 90.0 | 94.12 | 95.77 | 96.08 | 94.04 |
| Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)<br>Goi muga: 100.0 Behe muga: 95.0 | 98.03 | 97.45 | 95.68 | 98.01 |
| Irakaslanarekiko gogobetetze maila Goi muga: 4.2 Behe muga: 3.7 | 4.00 | 3.90 | 4.10 | 4.00 |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2014/2015 | 2015/2016 | 2016/2017 | 2017/2018 |
| Graduazio tasa<br>Goi muga: 99.0 Behe muga: 85.0 | 80.85 | 71.70 | 86.21 | 88.54 |
| Ikasketak utzi dituztenen tasa<br>Goi muga: 17.54 Behe muga: 0.0 | 13.76 | 10.24 | 13.16 | 10.34 |
| **Promozioaren urtea *** | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
| Egresatuen gogobetetzea<br>Goi muga: 7.5 Behe muga: 6.5 | 6.86 | 7.49 | 6.96 | 6.57 |
| Enplegu tasa<br>Goi muga: 0.0 Behe muga: 0.0 | 80.95 | 83.64 | 88.31 | 85.92 |

# MASTERRAK

## Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak Unibertsitate Masterra

BALORAZIOA: Honako hau da 2021/2022 ikasturtearen balorazio orokorra:

- Masterrak interes handia pizten du gure ikasle izan daitezkeen pertsonen artean, eta horixe adierazten dute aurrematrikulazio kopuruak eta lehen aukeran izena ematen duten pertsonen kopuruak. Masterra ezagutarazteko egin diren ahaleginek, bai fakultateak (sare sozial, Internet eta ikastegian jarritako iragarkien bidez) bai Masterreko Batzorde Akademikoak (Masterraren Eguna, webinarrak eta hitzaldiak), eta masterreko irakasle bakoitzak eginiko lan indibidualak (graduaren azken ikasturteko ikasleak erakartzeko) emaitzak izan dituzte, eta norabide horretan jarraitzeko asmoa dugu, beraz.
- Modalitate erdipresentzialaren ezarpenaren lehen ikasturtearen balorazioa oso positiboa da, matrikula kopuruagatik (22 plaza bete dira eskainitako 25 plazetatik) eta ikasleen nahiz irakasleen gogobetetze mailagatik, bai eta errendimendu, arrakasta, ebaluazio eta efizientzia tasengatik ere.
- Halaber, oso positiboki baloratzen da bikaintasun mailari eusteko irakasleak egiten ari diren ahalegina, bai irakaskuntzan (DOCENTIAZ programan borondatez parte hartuz) bai ikerketan (aipatzekoa izanik irakasle taldearen seiurteko kopurua).

| | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluaren okupazioa<br>Goi muga: Behe muga: | 25.45 | 40.00 | 20.00 | 48.89 |
| Tituluaren egokitasuna<br>Goi muga: Behe muga: | 85.71 | 81.82 | 54.55 | 90.91 |
| Errendimendu tasa<br>Goi muga: Behe muga: | 97.55 | 95.20 | 100.00 | 88.07 |
| Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)<br>Goi muga: Behe muga: | 97.42 | 95.92 | 100.00 | 100.00 |
| Irakaslanarekiko gogobetetze maila Goi muga: Behe muga: | 4.30 | 4.10 | 4.70 | 4.20 |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2016/2017 | 2017/2018 | 2018/2019 | 2019/2020 |
| 1. urtean ikasketak utzi dituztenen tasa (CURSA)<br>Goi muga: Behe muga: | 9.09 | 2.94 | 0.00 | 9.09 |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2017/2018 | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 |
| Graduazio tasa<br>Goi muga: Behe muga: | 89.29 | 100.00 | 90.00 | 100.00 |
| **Promozioaren urtea *** | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
| Egresatuen gogobetetzea<br>Goi muga: 10.0 Behe muga: 7.0 | 7.82 | 7.00 | 7.40 | 7.89 |
| Enplegu tasa<br>Goi muga: Behe muga: | 88.89 | 85.71 | 100.00 | 78.95 |

**Teknologia, Ikaskuntza eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra**

BALORAZIOA: Masterrak garapen egokia izan du azken urteetan, eta egokitu egiten da gaurko eta etorkizuneko ikasleen beharretara.
Hari buruz zabaltzen den informazioa egokia da, eta behar diren azpiegitura guztiak ditu ikasleen arrakasta akademikoa eta gogobetetze maila handia bermatzeko.

Irakasleek modu koordinatuan lan egiten dute, profil egokia dute (irakaskuntzaren eta ikerketaren ikuspegitik) eta gai dira egokitzeko eskakizun metodologiko, didaktiko eta teknologiko berrietara.
Etengabeko hobekuntzan eta ikaskuntzan daude.
Hori horrela, irakasleei seiurtekoak lortzen laguntzeko neurriak hartu dira eta ondorioz esponentzialki igo da masterrari lotutako seiurtekoen kopurua.

Erdipresentzialtasunaren balioa aitortzen da eta kalitate eta berme parametroetan garatzen da. Irakasleek eta ikasleek batera garatutako proiektuak sustatzea funtsezko alderdietako bat da.
Hori horrela, hezkuntza teknologiaren ikerketa ibilbidean sakontzera gonbidatzen ditugu, bai masterra egiten ari diren ikasleak bai ikasle egresatuak.
Gainera, EAEn lehen ikasle taldea antolatuta, masterra osatzeko prestakuntza plan bat egin da, hezkuntza teknologiaren alorrean gaurkotasun handia duten gaietan adituak diren pertsonen hitzaldien eta tailerren bitartez. Halaber, indartu egin dugu masterreko ikasleek sortutako ezagutzaren eta artefaktu teknologikoen transferentzia hezkuntza komunitatera eta gizartera.

Nabarmentzekoa da masterraren izaerak berak berekin dakarrela metodologia aktiboak eta azken metodologia berriak sartzea irakasgaien eta master amaierako lanen garapenean, helburua izanik ikasleek beren ikerketak egin eta beren ibilbidea jarraitzea doktorego tesiaren bidez.

Azkenik, masterra eguneratzen jarraitzeko beharra ikusten dugu, teknologia berrien garapenera eta hezkuntza sistemaren digitalizaziora egokitu ahal izateko.

| | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 | 2021/2022 |
|---|---|---|---|---|
| Tituluaren okupazioa<br>Goi muga: Behe muga: | 0.00 | 0.00 | | |
| Tituluaren egokitasuna<br>Goi muga: Behe muga: | 0.00 | 0.00 | | |
| Errendimendu tasa<br>Goi muga: Behe muga: | 69.00 | 20.24 | | |
| Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa)<br>Goi muga: Behe muga: | 100.00 | 80.00 | | |
| Irakaslanarekiko gogobetetze maila Goi muga: Behe muga: | 4.90 | | | |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2016/2017 | 2017/2018 | 2018/2019 | 2019/2020 |
| 1. urtean ikasketak utzi dituztenen tasa (CURSA)<br>Goi muga: Behe muga: | 0.00 | 28.57 | | |
| **Sarrera kohortearen ikasturtea** | 2017/2018 | 2018/2019 | 2019/2020 | 2020/2021 |
| Graduazio tasa<br>Goi muga: Behe muga: | | | | |
| **Promozioaren urtea *** | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
| Egresatuen gogobetetzea<br>Goi muga: Behe muga: | | | | |
| Enplegu tasa<br>Goi muga: Behe muga: | | | | |

## 2. Europako unibertsitate gidalerroen eta estandarren jarraipena

### 1. DIMENTSIOA. KALITATE POLITIKA ETA HELBURUAK

Ikastegiak hainbat jarduera zehazten ditu, aldian behin berrikusi beharrekoak, kalitate kultura bat garatzeari begira, interes taldeak inplikatuta. Jarduerak horiek oinarritzen dira fakultatearen kalitate politikan eta unibertsitatearen helburu estrategikoetan.

**1.0 AUDIT GIDALERROA. Kalitate politika eta helburuak**

| | |
|---|---|
| 1.1, Plan estrategikoa | 1.2, Urteko Plangintza |
| 5.1, Kanpo eta barne komunikazioa | 7.1, Interes taldeen gogobetetzea neurtzea |
| 7.5, Ebaluazioa, berrikuspena eta hobekuntza | |

BALORAZIOA: Fakultatearen aurreko plan estrategikoa itxi ondoren, 2021/2022 ikasturtean dekano talde berria hasi da lanean. Talde berriak aurrekoak baino dekanordetza bat gehiago du eta erantzukizunak birbanatzea eragin du horrek. Plan Estrategikoak definitutako Kalitate Politikak eta Helburuek isla dute planaren egitekoan eta ikuspegian, halako moldez, non helburu guzti-guztiak loturiko prozeduren oinarrian dauden. Hori horrela, eginiko ekintzak gauzatzen dira plan estrategikoaren eta urteko plangintzaren prozeduretan, bai eta helburuak betetzera loturiko adierazleak ere.
Kanpo eta barne komunikazioaren bidez, KBBS prozedura guztiei loturiko gai garrantzitsuenen bilakaeraren berri ematen zaie Interes Taldeei, eta laguntza eskatzen zaie gogobetetzea neurtzeko hainbat alderditan. Ebaluazio, berrikuspen eta hobekuntza prozedurari dagokionez, aukera ematen du gogoeta global bat egiteko ikasturtean eginiko kudeaketa lanari buruz, kalitatea hobetzen lagunduko duten hobekuntza ekintzak inplementatzeari begira.
Bilboko Hezkuntza Fakultatearen I. Plan Estrategikoaren betetze mailaren analisitik abiatuta, II. Plan Estrategikoa definituko da, Interes Talde guztiekin batera.

### 2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

Ikastegiak hainbat prozedura erabiltzen ditu graduko, masterreko eta doktoregoko programak diseinatzeko, onartzeko eta egiaztatzeko, interes taldeen eta, bereziki, ikasleen parte hartzea bermatuta, eta bere prestakuntza eskaintza mantentzea eta berritzea ahalbidetzen dio horrek.

**1.1 AUDIT GIDALERROA. Prestakuntza programen kalitate bermea**

| | |
|---|---|
| 1.3.1, Tituluen plangintza | 1.3.2, Sarrera profilaren definizioa |
| 1.3.3, Ikasketa amaierako profilaren definizioa | 2.1.1, Ikasleak erakartzea |
| 2.2.01, Irakaskuntzaren plangintza | 2.2.02, Irakaskuntzaren garapena |
| 2.2.03, Irakaskuntza koordinazioa | 2.2.07, Ikasketen amaierako lana |
| 5.1, Barne eta kanpo komunikazioa | 7.1, Interes taldeen gogobetetzea neurtzea |
| 7.2, Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak kudeatzea | 7.4, Irakaskuntza etetea |
| 7.5, Ebaluazioa, berrikuspena eta hobekuntza | |

BALORAZIOA: Dimentsio honetako prozedurak funtsezkoak dira gure tituluen programak diseinatu, onartu eta akreditatzeko, eta bermatu egiten dute fakultatearen egitekoa eta ikuspegia betetzeko behar den kudeaketa lana. Prozedura horien bitartez, Interes Taldeek parte hartzeko tresnak ezartzen dira, eta emaitzak berrikusten dira urtero, ebaluatuak izateko eta era horretan gure tituluen kalitatea hobetzeko behar diren ekintzak zehazteko. Hortaz, ikasle berriak erakartzeko unetik hasi eta ikasketak amaitzen dituzten unera arte, fakultateak hainbat prozedura erabiltzen ditu gure ikastegian Goi-mailako Hezkuntzaren martxa aztertzeko, prozedurak ebaluatzen, berrikusten eta hobetzen laguntzen duten kontrol eta neurketa prozedurekin batera. Den-denek dituzte batzordeak eta adierazleak,

## 2. DIMENTSIOA. PROGRAMEN DISEINUAREN KUDEAKETA

prozeduren ebaluazioa eta kalitatezko goi-mailako hezkuntzaren irizpideak betetzen direla bermatzeko. Horren guztiaren berri ematen zaio komunitateari, kanpo eta barne komunikazioko prozeduraren bidez.

## 3. DIMENTSIOA. PRESTAKUNTZA PROGRAMAK ESKAINTZEA

Ikastegiaren prozedurek ikaslearengan oinarritutako ikaskuntza sustatzen dute. Prozedura horiek kontuan hartu behar dute sarrera profilen aniztasuna, eta erabili behar dituzte, laguntza gisa, irakats modalitate eta metodologiak, tutoretzako ekintza planak, ebaluazio sistemak eta ikasleei tituluan espero diren emaitzak lortzen lagunduko dieten beste zenbait baliabide.

### 1.2 AUDIT GIDALERROA. Ikasleak ikasketetan orientatzea

| | |
|---|---|
| 1.3.1, Tituluen plangintza | 1.3.2, Sarrera profilaren definizioa |
| 1.3.3, Ikasketa amaierako profilaren definizioa | 2.1.1, Ikasleak erakartzea |
